

gkz berdea

10.zk. 2016ko apirila

Bi urtez baino gehiagoz GKZ Berdea aldizkaria argitaratzen ibili ostean, kopuru biribila lortu dugu: hamar. Hamar aldizkari hauetan, Fakultatearen kontsumo datuak partekatu ahal izan ditugu, eta, gainera, egoki jarduteko zenbait aholku eta infomazioa eman dugu, kontzientzia pizteko, batetik, eta Fakultateko jardunean eta oro har gure eguneroko bizimoduan arrasto ekologikoa murrizteko, bestetik.

Eskerrik asko aldizkari hau irakurtzeagatik. Espero dugu bide beretik jarraitu ahal izatea eta gutxienez beste hainbeste aldizkari argitaratzea.

Gogoan izan edozein iradokizun ondo hartuko dugula. Iradokizunak egiteko, gkz.ekoscan@ehu.eus helbidera idatzi baino ez duzue egin behar.


FAKULTATEKO KONTSUMOA

Hiruhilekoko Datuak

PAPERA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
38.500 unitate	25.000 unitate	28.000 unitate

Hau izan da aurtengo orain arteko kontsumoaren bilakaera (orri kopuruan):



Urteko lehen hiruhilekoan iazko hiruhileko berean baino paper gutxiago kontsumitzea lortu dugu. Urtarrilean, iaz baino 8.500 orri gutxiago kontsumitu dira, otsailean 4.500 orri gehiago eta martxoan 7.000 gutxiago. Guztira, lehen hiruhileko honetan 11.000 orri gutxiago kontsumitu dira. Dinamika ona da hori urtea hasteko.

Urtarrilean eta irailean kontsumitu ohi da paper gehien Fakultatean. Izan ere, azterketak ez ezik, bigarren lauhilekoko lan materiala ere inprimatzen da.

Aurten, udaberriko oporrak martxoan izan dira, eta horregatik kontsumitu da paper gutxiago hil horretan.

KARTUTXOAK/TONERRA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

	2016ko lehen hiruhilekoa
Imprimagailuetako kartutxoak	13

Banako inprimagailuetarako 13 kartutxo unitate birmanufakturatuta aldatu dira. Bestalde, funtzio askoko fotokopiagailuetarako 8 toner aldatu dira guztira.

BIRZIKLATZEKO EDUDIONTZIETARA BOTATAKO HONDAKINAK (Fakultatea)

	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
Ontziak*	32 kg	70 kg	71,5 kg


*Kg=kilogramoak (litro 1 paper=0.32 kg eta litro 1 plastiko 0,05 kg)

PAPER BIRZIKLATUA (Fakultatea)

Beotibar Recycling S.L, Bizkaiko Campuseko edukiontzi urdinetara botatzen den papera biltzeaz arduratzen den enpresak, gure Fakultatean bilduriko kilogramoen zifrak eman dizkigu. Hona hemen azken hiruhilekoan Fakultateko edukiontzi urdinetara botatako kopurua:

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
500 kg	500 kg	420 kg

Grafiko honek Fakultateko edukiontzi urdinetan bildutako kopuruak azken sei hilekoan izan duen bilakaera erakusten du:



Urtarrilean, otsailean eta martxoan paper kopurua bildu da, aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoko baina gutxiago. 2015eko hil berberekin alderatuta, urtarrilean paper gehiago bildu da, eta otsailean eta martxoan, berriz, gutxiago. Iaz 1.770 kg jaso ziren lehen lauhilekoan, eta aurtten, berriz, 1420 kg.

Antropozenoa

Mikropaleontologiako irakasle eta UPV/EHUko Kuaternario Masterreko arduradun Alejandro Cearretak duela gutxi [Campusa](#) aldizkari digitalean argitaratu duen iritzi artikulua gogoeta interesgarria egiten du Antropozenoaren kontzeptuari buruz.

Cearretak dioenez, 2000. urtean Paul Crutzen Kimikako Nobel saridunak eta Eugene Stoermer limnologoak adierazi zuten giza eraginaren ondorioz historia geologikoko beste fase bat hasi zuela Lurrak: Antropozenoa. Haren iritziak, Antropozenoa paradigma oso eraginkorra da gizateriaplanetaren funtzionamendua aldatzen ari dela adierazteko; izan ere, giza jarduera arrasto ezabaezina ari da uzten erregistro geologikoan.




Irakasearen arabera, duela gutxiko zenbait datuk Antropozenoaren errealismoa azaltzen dute. Planeta jada ez dago hainbeste biomaz osatua (habitat talde naturalak: basoak eta sabanak adibidez), antromaz baizik (paisaia kulturalak: baso maneiatuak, soroak eta hiri eremuak, adibidez).

Artikuluaren amaieran dioenez, Antropozenoa formalizatzea edo ez formalizatzea oinarri geologikoen arabera erabakiko da. Termino horrek, baina, sailkapen geologikoko eskema aldatzetik harago doan oihartzuna dauka. Jendearen interesa piztu du, gertatu diren askotariko ingurumen aldaketak biltzen dituelako.

Artikuluak, terminologiaren gaineko eztabaida alde batera utzirik, agerian uzten du gizakia orain arte ikusi gabeko aztarna uzten ari dela Lurrean.

Articulo osoa irakurgai dago Campusa aldizkarian, [esteka honetan](#).



Fakultatean ez da papera bakarrik birziklatzen

Korridoreetan ikus daitekeenez, eta behin baino gehiagotan esan dugun bezala, Fakultatean hondakinak gaika biltzeko zenbait gune daude. Birziklatzeko, hondakinak modu egokian bereizi behar dira, eta lan hori erraztu nahi dugu guk. Fakultate osoan hainbat garbigune daude, papera (eta kartoia), plastikoa eta gainerako hondakinak bereiz botatzeko.

Garbigune horiez gain, hain ohikoak ez diren baina kutsadura arrisku handia duten beste hondakin batzuk biltzeko guneak ere badaude:

Pilak

Pila erabiliak Idazkaritzan, Fakultateko sarreran dagoen Atezaintzan edo lehen solairuan (eraikin zaharreko eremuan) utz ditzakezu.

Bateriak

Fakultateko ate nagusian dagoen Atezaintzan utz ditzakezu sakelakoen, ordenagailuen eta abarren bateriak, behar bezala tratatu eta birzikla datitezen. Osagai horiek konposatu oso kutsagarriak izan ohi dituzte (merkurioa, beruna, kadmioa, manganesoa, litioa, zinka, nikela...)

Inprimagailuetako tonerra eta kartutxoak

Hala Idazkaritzan nola Fakultateko Atezaintzan aurkituko dituzu pila erabiliak botatzeko edukontziak.

Cdak

Baliagarri ez zaizkizun Cdak Fakultateko Atezaintzan laga ditzakezu.

Beira

Fakultateko jantokian beira biltzeko edukiontzi bat jarri da.



Kafe Makinak... Edalontzirik Gabeko Aukera


Hona hemen 2015. Urteari dagokion datua:

	2014	2015
Kontsumo Osoa	53.246	46.944
Edalontzirik Gabe	3.375 (%6,33)	3.202 (%6,82)

la-ia íazko balio berberei eutsi zaie; puntu erdi ugaritu dira edalontzirik gabeko aukera erabili duten kontsumizioak.

Gogoan izan Fakultate barruko kafe makinek kafea bost zentimo gutxiagoan kontsumitzeko aukera dutela; Beraz, 0,30 euroko kafe bat 0,25 euro kostatuko zaizu. Zeure katilu berrerabilgarria baliatzen baduzu, plastiko handakin gutxiago sortuko ditugu.

Bide batez, jakin ezazue beste kafe makina bat jarri dela Fakultatean, Entzunaretoaren ondoan.



Hemen azaldutako ideiaren bat aurrera atera nahi baduzu baina ez badakizu nola, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baduzu, jar zaitez harremanetan gurekin, helbide honetara idatzita:

Gkz.ekoscan@ehu.eus